ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**SILVIA PENA LORENTEK, ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIKO ORDEZKO IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

2023ko otsailaren 14an egindako ohiko Osoko Bilkuran honako akta hau egin da:

"Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan (Ezkaroze), **2023ko otsailaren 14ko** 18:30ean, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko Osoko Bilkura egin du, Pedro Mascaray Navarro Batzordeburu dela.

Batzordekide hauek bertaratu dira:

**ALDAGAINA**:

**ERRARTEA:** Gonzalo Celay.

**ATABEA**: Pedro Mascaray, Pio Sarries eta Elena Ayerra.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

2023ko urtarrilaren 17ko Osoko Bilkuraren akta ikusirik, aho batez onetsi da.

**2. LANGILEEN ORDEZKARIAK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHIKO PROZESUARI DAGOZKION LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA ARGITARATZEARI BURUZKOA.**

Urtarrilaren 17an, langileen ordezkariak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen 2022ko abenduaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (254. zk) argitaratutako iragarkiaren aurka. Iragarki hori aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion

**SILVIA PENA LORENTE, SECRETARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR, CERTIFICO:**

"En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las 18:30 horas del día **catorce de febrero del 2023**, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión Ordinaria bajo la Presidencia de D. Pedro Mascaray y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

**POR ALDAGAÑA:**

**POR ERRARTEA:** Sr. Gonzalo Celay.

**POR ATABEA:** Srs. Pedro Mascaray y Pío Sarries, y Sra. Elena Ayerra.

Abierta la sesión por el Sr Presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN ACTA ANTERIOR**

Vista el acta del 17 de enero del 2023 se aprueba por unanimidad.

**2.- RECURSO DE REPOSICIÓN DE LA DELEGADA DE PERSONAL EN RELACIÓN A LA PUBLICACIÓN DE LA CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN, MEDIANTE CONCURSO DE MÉRITOS, DE VACANTES DE PUESTOS CORRESPONDIENTES AL PROCESO EXTRAORDINARIO DE ESTABILIZACIÓN Y CONSOLIDACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL.**

La Delegada de personal el 17 de enero presentó RECURSO DE REPOSICIÓN frente al anuncio que se publicó en Boletín Oficial de Navarra número 254, el 19 de diciembre, sobre la Convocatoria para la provisión, mediante concurso de méritos, de vacantes de puestos correspondientes al proceso extraordinario de estabilización y consolidación de empleo temporal, según lo dispuesto en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas

lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa zen, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Langileen ordezkariak Batzordeari eskatu dio berraztertzeko errekurtso hau baiesteko eta, bidezko legezko izapideak egin ondoren, beste ebazpen bat emateko, merezimendu-lehiaketaren bidez lanpostuak betetzeko deialdia baliogabetuz eta berriz formulatuz, berraztertzeko errekurtsoak eskatutakoarekin bat.

Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta, akatsen ondorioz sortutako egoera ikusita, aho batez onetsi du deialdi hori indarrik gabe uztea, baliogabetzea alegia.

**3. SILVIA IRIARTEK JARRITAKO GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, BATZORDEAK 2022KO UZTAILAREN 8AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTAREN 8. PUNTUAREN AURKA**.

Silvia Iriartek Nafarroako Administrazio Auzitegian jarritako 22-02300 zenbakiko errekurtsoaren berri eman da. Horren bidez Auzitegiari eskatu dio gora jotzeko errekurtsoa aurkeztutzat jotzeko eta onartzeko. Errekurtsoan Zaraitzuko Batzorde Nagusiak 2022ko uztailaren 8ko Ohiko Osoko Bilkuraren Aktaren aurka egin du, zehazki, 8. puntuaren aurka, zeinak errekurtsogileari buruzko adierazpen eta ohartarazpen batzuk onartzen dituen. Auzitegiari eskatu dio ebazpena eman dezan Batzordearen ebazpena osorik edo subsidiarioki 8. puntua baliogabetzeko, zuzenbidearekin bat ez datorrelako.

Batzordeak aho batez erabaki du Auzitegiari erantzuna ematea, nahitaezko

urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

La delegada de Personal SOLICITA a la Junta que estime este recurso de reposición y, previos trámites legales oportunos, dicte nueva resolución por la que anule la Convocatoria para la provisión, mediante concurso de méritos mencionada, y se reformule la misma ajustándose a lo solicitado en el presente recurso de reposición.

La Junta se da por enterada y APRUEBA POR UNANIMIDAD dejar sin efecto (anula) dicha convocatoria a la vista de la situación creada por errores.

**3.- INTERPOSICIÓN DE RECURSO DE ALZADA AL TAN CONTRA EL ACTA DE SESIÓN ORDINARIA DE 8 DE JULIO DE 2022 DE LA JUNTA, MÁS CONCRETAMENTE, FRENTE AL PUNTO 8 POR SILVIA IRIARTE.**

Se traslada el Recurso número 22-02300, interpuesto por Dª Silvia Iriarte, en el que SUPLICA al Tribunal Administrativo de Navarra, que tenido por presentado este escrito, se sirva a admitirlo y, en su virtud, tener por presentado RECURSO DE ALZADA frente al Acta de Sesión Ordinaria de 8 de julio de la Junta General del Valle de Salazar; más concretamente, frente al punto 8, en las que se acuerda aprobar una serie de manifestaciones y advertencias sobre la aquí recurrente, y se dicte RESOLUCIÓN mediante la cual se declare nula la resolución aquí impugnada en su totalidad, o subsidiariamente, su Punto 8; o, subsidiariamente, la anulabilidad de la resolución de forma total por no ser conforme a derecho, o subsidiariamente, la anulabilidad de su Punto 8.

La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD su contestación al TAN mediante el informe preceptivo, documentación adjunta y proposición de prueba que se formule.

txostena, erantsitako dokumentazioa eta egiten den froga-proposamena aurkeztuta.

**4. IRATIKO BASOZAINEN DEMANDA BATZORDEAREN AURKA, LAN BALDINTZEN FUNTSEZKO ALDAKETAGATIK ETA KALTE ETA GALERENGATIK JARRITAKO ERREKLAMAZIOAN.**

Iñaki Arozarenak Administrazioaren letraduak emandako ebazpenari jarritako berraztertzeko errekurtsoaren berri eman da, Iratiko basozainek jarritako 2/2023 erreklamaziori buruzkoa. Errekurtsoaren bidez Lan arloko epaitegiari eskatu diote errekurtsoa onesteko eta aipatutako demanda aurkeztutzat jotzeko, eta, horren arabera, alderdiei dei egin diezaien nahitaezko adiskidetze-egintza eta ondorengo ahozko epaiketa egiteko; eta azken batean, aurkeztutako demanda baiesten duen epaia emanez,

1. Aurkaratzen den erabakia baliogabea dela deklaratzea edo, subsidiarioki, justifikaziorik ez duela deklaratzea, bi kalifikazioetan langileak aurkaratzen duen erabakiaren aurreko lan-baldintzak (lantokia) berrezarriz.

2. Halaber, honako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea aitortzea:

a. Ondare-kalteengatik; behar bezala zehaztuko dena.

b. Oinarrizko eskubideak urratzeagatik eta/edo kalte moralengatik; behin-behinean 30.000,00 euroan.

Eta horiek guztiak, gerora parametro horiek zehazteari edo zabaltzeari kalterik egin gabe.

Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta, irizpide juridikoari jarraituz, errekurtso hori ez aurkaratzea erabaki du,

**4.- DEMANDA EN RECLAMACIÓN POR MODIFICACIÓN SUSTANCIAL DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO, Y DAÑOS Y PERJUICIOS FRENTE A LA JUNTA, POR EL PERSONAL DEL GUARDERÍO TURÍSTICO**

Información sobre el traslado del Recurso de Reposición interpuesto por el Sr. Arozarena, a la resolución dictada por la Letrada de la Administración, en relación con el número de procedimiento 2/2023, interpuesto por el personal del guarderío turístico, en el que SUPLICAN AL JUZGADO DE LO SOCIAL, que tenido por presentado este escrito con sus copias se sirva admitirlo y, en su virtud se tenga por formulada la citada DEMANDA, y en su virtud, se sirva citar a las partes para la celebración del preceptico Acto de Conciliación y subsiguiente Juicio Oral, para en definitiva dictar Sentencia, por la que estimando la demanda presentada;

1. Se declare la NULIDAD o subsidiariamente el carácter INJUSTIFICADO de la decisión que se impugna, reponiendo en ambas calificaciones a los trabajadores en las condiciones de trabajo (centro de trabajo) anteriores a la decisión que se impugna

2. Y, asimismo, se le reconozca el derecho a ser indemnizados en estos parámetros:

a. Por daños patrimoniales, que se concretará oportunamente.

b. Por vulneración de sus derechos fundamentales, y/o por daños morales, en la cantidad provisional de 30.000,00€.

Y todo ellos, sin perjuicio de ulterior concreción o ampliación de estos parámetros.

La Junta se da por enterada y siguiendo criterio jurídico, decide no impugnar dicho Recurso quedando a la espera de la resolución.

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

ebazpenaren zain geratuz. Informazioa ematen jarraituko da.

Jarraian, ahoz batez erabaki da 10. puntua aztertzea.

**10. IRATIKO BASOZAINEKIN BILERA: 2022KO PLANTILLA ORGANIKOA ZUZENTZEA ETA 2023KO PLANTILLA ORGANIKOA HASIERA BATEAN ONESTEA, ETA 2023KO LAN-EGUTEGIA ETA ORDUTEGI-TAULA.**

Proposatu da otsailaren 15ean idazkariak eta langileen ordezkariak bilera bat egitea, 2022ko plantilla organikoa zuzendu eta ixteko, 2022ko abenduaren 12an aurkeztu zituen alegazioen ondoren. Iratiko basozain guztiak ere joanen dira bilera horretara.

Bilera horretan argi utziko da Batzordea prest dagoela langileen eskaerak idatziz jasotzeko, baina adieraziko da oso zaila zaiola aurrera egitea Batzordeak egiten dituen jarduketei jarritako alegazioen, berraztertzeko errekurtsoen, gora jotzeko errekurtsoen eta demanden ondorioz.

Iratiko basozainei behin baino gehiagotan eskatu zaie lan-egutegi alternatibo bat egiteko, egokitzat jotzen dituzten hobekuntzak jarrita (oporrak eta abar), ondoren Batzordeak azter ditzan, aurreko urteetako turismoaren eskaerak kontuan hartuta; alabaina, ez dute egutegi alternatiborik bidali.

Idazkariak ohartaraziko du berak ez duela negoziazio-funtziorik eginen, Batzordearen eta langileen arteko bitartekaritza baizik.

2023ko plantilla organikoa aurrekontuekin batera onetsiko da.

Se seguirá informando.

Seguidamente y por unanimidad se pasa a tratar el punto número 10.

**10.- REUNIÓN CON EL PERSONAL DEL GUARDERÍO TURÍSTICO SOBRE LA CORRECCIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA DEL 2022 Y FUTURA APROBACIÓN INICIAL DE LA PLANTILLA ORGÁNICA DEL 2023; EL CUADRO HORARIO Y CALENDARIO LABORAL 2023.**

Se plantea una reunión para el 15 de febrero entre la Secretaria y la Delegada de Personal para dar por concluida y corregida la Plantilla Orgánica del 2022 tras las alegaciones que presentó el 12 de diciembre del 2022. A esta reunión acudirá también el resto del personal del guarderío turístico.

En esta reunión se dejará claro que la Junta está en disposición de recibir por escrito cualquier petición por parte de toda la plantilla. Pero debido a la situación actual de alegaciones, recursos de reposición, de alzada, y demanda interpuestos a las actuaciones que se realizan desde la Junta, es muy difícil seguir avanzando.

Se ha pedido varias veces al guarderío turístico que ellos elaboren un calendario laboral, alternativo y en concordancia al que prepara la Junta, con las mejoras que ellos crean pertinentes, vacaciones, etc. para que la Junta después las estudie, según las demandas del turismo de años anteriores. Pero el guarderío turístico no ha mandado calendario alternativo.

La secretaria advertirá que ella no tiene la función de mediadora, sino de intermediaria entre la Junta y el personal del guarderío.

La plantilla orgánica del 2023 se aprobará junto con los presupuestos.

**5.- SOLICITUD SUBVENCIÓN PARA LA**

**5. "TOKIKO AGENDA 2030" EGITEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA (2023).**

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 1302E/2022 Ebazpena, 2030 Tokiko Agendaren TEPa gauzatzeko toki erakundeei dirulaguntza emateko deialdia onetsi zuena, aho batez erabaki da dirulaguntza eskatzea.

Altxa Ondareak aurkeztutako "Iratiko eta Erremendiako bidexkak eta BTT ibilbideak mantentzeko memoria teknikoa" izeneko proiektuaren aurrekontua aztertuko da, 2023ko apirilean, maiatzean, ekainean eta irailean gauzatzeko. Kontrata bidezko aurrekontua 9.994,60 eurokoa da (BEZa barne).

**6. ERREMENDIAKO OBREN KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAK ONESTEA**

6.1. ERREMENDIAKO ERAIKIN NAGUSIKO BEHEKO SOLAIRUA EGOKITZEKO PROIEKTUA

Jose Mari Mariñelarena ingeniariak Erremendiako proiektuaren 3. faserako (eraikin nagusiko jarduketak) aukeren eta aurrekontuaren planoak bidali ditu, Proiektu Estrategikoen zuzendariaren apirilaren 26ko 15E/2021 Ebazpenaren hirugarren faseari dagokiona -ebazpen horren bidez Pirinioen lurralde-eremuan inskribatuta dauden toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdia onartu zen, 2021-2023 urteetan Lurralde Garapen Iraunkorreko Proiektuetan inbertsioak egiteko-.

Aho batez onetsi da bilera-gelarik gabeko proiektua, kafetegi-tabernak eta bi

**ELABORACIÓN DE LA AGENDA LOCAL 2030-AÑO 2023.**

Vista la Resolución 1302E/2022, de 9 de diciembre, del director general de Medio Ambiente, por la que se aprueba la convocatoria de la subvención a EELL para la ejecución del PAL de la Agenda Local 2030-Año 2023, SE ACUERDA POR UNANIMIDAD SOLICITAR LA SUBVENCIÓN a la Agenda Local 23.

Se estudiará el presupuesto del proyecto presentado por Altxa Ondarea del proyecto de "Memoria técnica - Mantenimiento de Senderos Locales y Rutas BTT de Irati y Remendía" para su ejecución en los meses de abril, mayo, junio y septiembre de 2023. El presupuesto de ejecución por contrata asciende a 9.994,60€ IVA incluido.

**6.- APROBACIÓN PLIEGOS DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE RIGEN EL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DE LOS CONTRATOS DE LAS OBRAS:**

6.1. PROYECTO DE ADECUACIÓN INTERIOR DE PLANTA BAJA EN EDIFICIO PRINCIPAL DE FINCA REMENDIA, VALLE DE SALAZAR (NAVARRA)

Respecto a la tercera fase de la Resolución 15E/2021, de 26 de abril, del Director de Proyectos Estratégicos, por la que se aprueba la convocatoria de Subvenciones a entidades locales inscritas en el ámbito territorial del Pirineo para inversiones en Proyectos de Desarrollo Territorial Sostenible durante los años 2021, 2022 y 2023 el Ingeniero Jose Mari Mariñelarena envía planos de las opciones y presupuesto para la 3ª fase de Remendia (actuaciones en edificio principal).

Se APRUEBA POR UNANIMIDAD el proyecto sin sala de reuniones con las medidas

bainugelek hasieran zuten neurriekin.

Kontratazio-espedientea izapidetze arruntaren bidez eginen da, eta kontratua prozedura sinplifikatuaren bidez esleituko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta baldintzen agirian ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta.

Aurrekontua 181.968,817 eurokoa da (BEZa barne).

Aho batez onetsi da Erremendiako 2023ko obra-kontratuaren esleipena arautuko duen baldintzen agiria.

6.2. IRATIKO ETXEETAKO, ABODIKO ATERPEKO ETA ERREMENDIAKO KONEKTIBITATEA

Jose Mari Mariñelarena ingeniariak Iratiko Etxeetako, Abodiko Aterpeko eta Erremendiako konektibitate-proiektuari buruzko memoria zenbatetsia bidali du, 127.945,64 euro (BEZa barne). Obra hori finantzatuko da Nafarroako Gobernuak 2023ko Aurrekontuen Legean duen 120.000 euroko partidaren kontura (zuzeneko laguntza).

Kontratazio-espedientea izapidetze arruntaren bidez eginen da, eta kontratua prozedura sinplifikatuaren bidez esleituko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta baldintzen agirian ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta.

Batzordeak aho batez onetsi du baldintzen agiria.

6.3. BATZORDEAREN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN DEPARTAMENTUAREN

iniciales de la cafetería-bar y dos baños.

El expediente de contratación objeto del presente Pliego se realizará con tramitación ordinaria y el contrato se adjudicará mediante PROCEDIMIENTO SIMPLIFICADO de conformidad con lo dispuesto en el artículo 80 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos y en base a los criterios de adjudicación establecidos en el presente Pliego.

La valoración económica asciende a 181.968,817 euros IVA incluido.

Se APRUEBA POR UNANIMIDAD el Pliego de condiciones regulador de la adjudicación del contrato de obras en Remendía para el año 2023.

6.2. DOTACIÓN DE CONECTIVIDAD EN LAS CASAS DE IRATI, REFUGIO DE ABODI Y EN LA FINCA DE REMENDIA

El ingeniero Jose Mari Mariñelarena manda memoria valorada sobre el proyecto de conectividad en las Casas de Irati, el Refugio de Abodi y en la Finca de Remendia por un valor de 127.945,64 euros IVA incluido. El Gobierno de Navarra tiene una partida presupuestaria aprobada en la Ley de Presupuestos de 2023 de 120.000 euros (ayuda directa) con la que se financiara dicha obra.

El expediente de contratación objeto del presente Pliego se realizará con tramitación ordinaria y el contrato se adjudicará mediante PROCEDIMIENTO SIMPLIFICADO de conformidad con lo dispuesto en el artículo 80 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos y en base a los criterios de adjudicación establecidos en el presente Pliego.

La Junta APRUEBA POR UNANIMIDAD aprobar esta obra y los pliegos.

6.3. AUTORIZACIÓN DE GASTO:

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

ARTEKO HITZARMENA. ERREMENDIAKO JARDUKETAK. GASTUA BAIMENTZEA

Zaraitzuko Batzorde Nagusiarekin hitzarmena egin ondoren, Proiektu Estrategikoen Departamentuak 40.000 euroko gastua baimendu du Erremendiako jarduketetarako.

Une honetan Elena Ayerra bilkuratik joan da.

**7. "IRATIKO ATLAS EMOZIONALA. EMAKUMEEN AZTARNAK." INNOVA LOCAL PROIEKTUARI DIRU-EKARPENA EGITEA**

Hauek dira proiektuaren xehetasunak:

Emakumeek Irati ibaian historian utzitako aztarnak ikertuko ditu Proiektuak. Horretarako, aldez aurretik azterlan bat eginen da eta jendea elkarrizketatuko da. Istorioak idatzi eta ilustratuko dira denboran iraungo duen produktu turistiko eta hezitzaile bat sortzeko.

Liburuxka irudidunak eginen dira, liburutegietan, ikastetxeetan, hoteletan, landetxeetan, turismo bulegoetan, interpretaziorako zentroetan eta abarretan banatzeko. Lurraldearentzat baliabide turistiko eta hezitzaile berritzailea izanen da.

Batzordeak aho batez erabaki du eskatutako diru-ekarpena (950 €) ematea.

**8. FORESNAREN AURREKONTUA, IRATIKO PARKE NATURALAK IZAN DITZAKEEN ONDORIOEI BURUZKO AZTERLANA EGITEKO**

Eduardo Monterok Iratiko Parke Naturalari buruzko azterlanaren aurrekontua igorri du. Aurrekontuak Aezkoa eta Zaraitzu hartzen ditu barne; beraz,

CONVENIO DE LA JUNTA CON EL DEPARTAMENTO DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS. ACTUACIONES EN REMENDIA.

El Departamento de Proyectos Estratégicos autoriza un gasto de 40.000€ para actuaciones en Remendia, tras la elaboración de un convenio con la Junta General del Valle de Salazar.

En este momento, la vocal Elena Ayerra abandona la sesión.

**7.- APORTACIÓN ECONÓMICA AL PROYECTO INNOVA LOCAL. ATLAS EMOCIONAL DEL IRATI. LAS HUELLAS DE LAS MUJERES.**

El proyecto consiste en una investigación de las huellas de las mujeres en el río Irati a lo largo de toda la Historia, con estudio previo y entrevistas. Las historias se redactarán e ilustrarán para generar un producto turístico y educativo con duración en el tiempo.

Se elaborarán cuadernillos ilustrados de las historias para su distribución en bibliotecas, centros educativos, hoteles, casas rurales, oficinas de turismo, interpretación, etc. siendo un recurso turístico y educativo novedoso para el territorio.

La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD CONCEDER la aportación económica solicitada, 950€.

**8. PRESUPUESTO DE FORESNA PARA LA REALIZACIÓN DE UN ANÁLISIS DE LAS IMPLICACIONES QUE PUEDE SUPONER LA DECLARACIÓN DE PARQUE NATURAL PARA IRATI.**

Eduardo Montero manda el presupuesto del análisis general y puntos críticos de la figura de Parque Natural para Irati. Dado el caso, ha realizado el presupuesto incluyendo Aezkoa y Salazar, por lo que habría que

Aezkoako Batzarrarekin koordinatu beharko litzateke. Enkargua laster formalizatuz gero, azterlana aste santua baino lehen egin liteke.

Aezkoako Batzarrak proiektuan ez sartzea erabaki zuen, Biosfera Erreserba izendatzeko lanean ari direlako.

Batzordeak aho batez erabaki du aurrekontua ez onartzea eta Parke Naturalaren ideia baztertzea.

**9. ERRETIRATUEN, ALARGUNEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEAREN GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

Erretiratuen, alargunen eta Pentsiodunen Elkarteak egindako gastuen justifikazioa ikusirik, aho batez erabaki da 2.230 euroko gastua onestea, kultur jardueretako deialdiko oinarriekin bat.

**11. 2022KO KULTUR ETA KIROL JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA**

2022an egindako kultur jardueren gastuen justifikazioak aurkeztu dira. Horiek aztertu ondoren, oinarriekin bat egiten dutela ondorioztatu da. Horrenbestez, dirulaguntza hauek ordainduko dira:

coordinarse con la Junta de Aezkoa. El plazo de realización será previo a Semana Santa si el encargo se formaliza en breve.

La Junta de Aezkoa decidió no entrar en este proyecto ya que se está trabajando en la declaración de la Reserva de la Biosfera.

La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD no aprobar el presupuesto y no seguir adelante con la idea del Parque Natural.

**9.- JUSTIFICACIÓN GASTOS ASOCIACIÓN DE JUBILADOS/AS, VIUDOS/AS Y PENSIONISTAS.**

Vistos los gastos justificados de la Asociación de Jubilados/as, viudos/as y pensionistas, se ACUERDA POR UNANIMIDAD aprobar el gasto de 2.230€ según las bases de las actividades culturales.

**11.- ABONO ACTIVIDADES CULTURALES Y DEPORTIVAS, EJERCICIO 2022.**

Presentada la justificación de los gastos de las diversas actividades culturales realizadas en el Valle, en el Ejercicio 2022 y una vez revisados y viendo que se ajustan a las bases establecidas, se procederá al abono de las citadas subvenciones:

| JARDUERA<br>ACTIVIDAD | AURREKONTUA<br>PRESUPUESTADO | GASTUA<br>GASTADO | DIRULAGUNTZA %33<br>33% SUBVENCIÓN |
|---|---|---|---|
| **YOGA** | 4.800,00 | 4.240,00 | 1.399,20 |
| **AEK CLASES EUSKERA** | 5.350,00 | 3.745,00 | 1.235,85 |
| **NATACIÓN** | 1.463,69 | 1.463,69 | 483,01 |
| **APYMA** | 462,00 | 462,00 | 152,46 |
| **YOGA CAMINANDO** | 5.937,11 | 5839,19 | 1.926,93 |
| **PINTURA** | 2.900,00 | 2.059,00 | 679,47 |
| **GANCHILLO** | 1.800,00 | 1.740,00 | 574,20 |

**DIRULAGUNTZAK, GUZTIRA ………………… 6.415,12 €**

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**TOTAL SUBVENCIONES ……………………… 6.415,12 €**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **LUDOTECA VERANO** | **1.540,00** | **1.540,00** | **508,20** |

**12. JAIOTZARENGATIKO DIRULAGUNTZA ESKAERAK**

Ainara Urralburuk eta Inautzi Adotek beren seme-alaben jaiotzagatik aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioa aztertu ondoren, aho batez erabaki da dirulaguntza ematea (Ainara Urralbururi 2022ko aurrekontuen kargura).

**13. DIRUAREN ERABILERA**

Faktura hauek onetsi dira:

**12.- SOLICITUD DE AYUDAS A LA NATALIDAD.**

Vista las solicitudes y documentación presentada dentro del Programa Regulador de las Ayudas a la natalidad por Ainara Urralburu (concediéndole la citada ayuda con cargo al presupuesto del 2022) e Inautzi Adot, se ACUERDA POR UNANIMIDAD concederles la citada ayuda.

**13.- DISPOSICIÓN DE FONDOS**

Seguidamente son aprobadas las facturas que se detallan a continuación:

SOM ENERGÍA, luz dependencias Casa Valle, Diciembre ........ 592,75
CONATEL, teléfono y wifi vía satélite Caseta Irati ........ 66,55
MOVISTAR, fusión teléfono Junta, Serv. Euskera, móvil trabaj. e Internet, Enero ........ 141,57
RCI BANQUE, recibo lissing coche Dacia 31/60 ........ 344,63
IBERDROLA, luz báscula ........ 4.40
IBERDROLA, luz 2º planta Casa Valle ........ 17,36
CAJA RURAL mantenimiento programa contabilidad y sede electrónica ........ 1.851,13
ESPORTS JORMA, material esquí para Abodi ........ 14.484,97
MOVISTAR, fusión teléfono Junta, Serv. Euskera, móvil trabaj. e Internet, Febrero ........ 141,57
ALFONSO FONTANERIA, cambiar grifos lavabos Casa del Valle ........ 268,92
VALENZUELA HERMANOS, podadora Husqvarna ........ 628,99
FERRETERIA LUGA, material para Centro Esquí Abodi ........ 92,27
AIERDI INGENIEROS, memoria valorada obra conectividad ........ 1.815,00
PAPELERIA SANCHEZ, diverso material de oficina ........ 413,82
EKILORE, limpieza Casa Valle, Enero ........ 183,92
TTIPI-TTAPA, material Servicio euskera ........ 21,18
IZASKUN MUJIKA, actividad Serv. Euskera “ipuinaren ordua” ........ 187,00
FACE AU SUD, alojamiento App móvil y web ........ 180,00
FLANDES, gestiones asesoría 1º trimestre ........ 532.40
DINDAIA, actividad Servicio Euskera, talleres infantiles ........ 280,00
SANCHO´S, material oficina ........ 19,89

ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tlfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

TALLERES AREKI, batería moto nieve ........ 134,98
CONATEL, teléfono y wifi vía satélite Caseta Irati ........ 66,55
RCI BANQUE, recibo lissing coche Dacia 32/60 ........ 344,63
COMERCIO ERRARTEA, productos limpieza, pat fuego, agua, vasos etc ........ 105,85

**14. GALDE-ESKEAK**

Ez dago.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 21:15ean Batzordeburuak bilkura amaitu du."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau eman dut, Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren zigilua jarrita eta Batzordeburuak ontzat emana.

Ezkarozen, 2023ko martxoaren 3an

**14.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se suscitan.

Y, no habiendo más asuntos a tratar, el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las veintiún horas y quince minutos."

Y para que así conste, expido la presente certificación sellada con el cuño de la Junta y con el Vº Bº del Presidente.

En Ezcároz, a 3 de marzo de 2023.